


## Esportazioak %23,7 murriztu ziren martxoan

Ondasunen esportazioak atzerrira  
Urte bakoitzeko martxoa. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Atzerrira bidalitako EAEko ondasunen esportazioak %23,7 gutxitu ziren martxoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Bilakaera hori energiaz bestelako produktuek izan zuten portaera negatiboak eragin zuen (-%26,0), baina produktu energetikoen %25,9 egin zuten gora.

## Zerbitzuen negozio zifra %8,9 jaitsi zen

Zerbitzuen negozio zifra  
Urte bakoitzeko martxoa. Indizea



Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **martxoan %8,9 jaitsi zen zerbitzuen negozio zifra**. Aste Santuaren ospakizunak eragina izan zuen jaitsieran, zuzendu gabeko datu gordinak baitira. Hala ere, martxoan serie historiko osoan lortutako bigarren erregistrorik onena jaso zen. Bestalde, enplegua %1,0 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean.



## Hoteletako gaualdiek gora egiten jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak  
Urte bakoitzeko apirila arte. Milakoak




Iturria: Eustat.

Apirilera arte, EAEko hotel establezimenduetako gaualdiak %4,9 gehitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, ia bi milioi gaualdi jaso ziren, serie historiko osoan lehen lauhileko batean inoiz lortu den erregistrorik altuena baita.

## Industriako prezioek behera egin dute berriro

Industria prezioen indizea (IPRI)  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

EAEko industria prezioak %6,2 jaitsi ziren apirilean aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Beherakada hori energiak (-%24,5) eragin zuen batez ere, eta horrekin batera, bitarteko ondasunek (-%1,3) eta kontsumoko ondasunek (-%0,1)